

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

R13/2009 ebazpena

3/2008 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2009ko ekainaren 19an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador batzordekideek osaturikoak, honakoa erabaki du:

ERABAKIA

Arabako Foru Aldundiak, Estatuko Zerga Administrazioaren aurka, planteatutako eskumen gatazkari buruz, lotura puntuen aplikazioari eta (Erakundea)-ren (IFZ: ANNNNNNNN) 1990eko urtarriletik 2005eko abendura arteko likidazioaldietako Balio Erantsiaren gaineko Zergan (BEZ) administrazio bakoitzari dagokion proportzioa zehazteari dagokienez. Izan ere, Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da auzi hori, 3/2008 zenbakiko espedientean.

I.- AURREKARIAK

1. 2008ko martxoaren 14an, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak sinaturiko idazkia sartu zen Arbitraje Batzorde honetan, Estatuko Administrazioaren aurka eskumen gatazka planteatzeari buruzkoa. Idazki horretan (Erakundea) erakundeak, ANNNNNNN IFZ duenak (aurrerantzean, sozietatea), lurralde historiko horretan egindako eragiketen portzentajea finkatzeko eskatu zuen, hain zuzen ere, ondasun-emateen barruko eragiketena eta ondasunen Erkidego barruko eskuraketena, eragiketa guztiak BEZari lotuta eta salbuetsi gabe daudela. Idazki horretan adierazita dator, Arbitraje

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

Batzordearen Erregelamendua (aurrerantzean, EIABE) onartu duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 11. artikuluari jarraiki, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailari gatazkaren planteamendua jakinarazi zitzaioela eta, haiek kalkulaturiko eragiketen guztizko proportzionala sozietateak Espainian egin duen (Marka) eta (Marka) marketako ibilgailuen merkaturatze eragiketetan oinarriturik dagoela azaldu ondoren, erreklamatzeko den zenbatekoa 455.872.482,77 eurokoa dela finkatu du, lurralde historikoan egindako eragiketen portzentajea % 95ekoa dela iritziz.

2. Gatazkaren planteamenduari buruzko idazkian, Arabako Foru Aldundiak egindako errekerimenduen datak azalduta datoz:

1) Lehenengo errekerimendua, 1998ko azaroaren 24koa, Arabako Foru Aldundiko Finantza, Ogasun eta Aurrekontu Sailaren Ikuskatze Zerbitzuko buruak Euskadiko Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (ZAEA) Ordezkaritza Bereziko jarduneko eskualdeko ikuskatzaileari bidalitako idazkia izan zen, bi txosten erantsita. Idazki horretan honakoa dakar, hitzez hitz: “Honekin batera Arabako Foru Aldundiko Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak egindako bi txosten bidali dizkizut, (Marka) Automobileren Espainian 1995/10/3ra arte izandako Zerga Erregimenari buruzkoak eta (Marka) Ibilgailuen Espainian izandako Zerga Erregimenari buruzkoak” (letra larriak hitzez hitz kopia dira). Lehenengo txostenak 1990eko urtarriletik 1995eko urrira artekoa barne hartzen du eta bigarrenak, berriz, 1995eko azarotik 1998ko irailera artekoa.

Argudioen zerrenda luzearen ondoren, honakoa argudiatu zen: “foru aldundietako Ikuskatzaileetako buruek eta Zerga Administrazioako Agentziak administrazioen arteko zergen banaketari buruzko arazoak konpontzeko egin zuten 1998ko otsailaren 10eko bileran adostu ziren irizpideen aplikazioa” eta azalduta dator txostenak igorri direla ZAEAn zerbitzuek horiei buruz egoki iritzitako gogoetak egin ditzaten hiru hilabeteko epean, eman ziren egunetik aurrera zenbatuta; epe hori igarotakoan, Arabako Foru Aldundiak ulertuko luke ZAEA haien edukiarekin ados dagoela, eta zenbateko horiek egiaztatuta lirateke, ordainduak izateko.

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebareko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

2) Bigarren errekerimendua Arabako Foru Aldundiko Finantza, Ogasun eta Aurrekontu Sailaren Ikuskatze Zerbitzuko buruak Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziari bidalitako 2003ko abenduaren 18ko idazkiaren bidez egin zen. Idazki horretan, ZAEARI sozietatearen BEZAREN zerga ordainketaren portzentajea behin eta berriz erreklamatzeko ari zitzaiola adierazi ondoren, ibilgailuen banaketaren prozedura berriro azaldu zuen eta Ikuskaritzako Bulego Nazionalaren (IBN) txostenak (ZAEAK aurkeztu dituen, geroago aztertuko ditugunak) argudiatu eta gero, 1998ko irailetik 2002ko abendura arte erreklamaturako kopuruak eta datuak eguneratu zituen (BEZAREN proportzioa Arabarako % 95ekoa eta ZAEARAKO % 5ekoa dela kontuan hartuta).

3) 2005eko abenduaren 16an (irteera data: abenduaren 19a) Arabako Foru Aldundiko Finantza, Ogasun eta Aurrekontu Sailaren Ikuskatze Zerbitzuko buruak Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziari Eskualdeko Ikuskaritzari idazkia bidali zio. Horren bidez, antzeko argudioak adierazi eta eskumenik gabeko administrazioan egindako diru sarrerengatik erreklamaturako zenbatekoak eguneratu zituen, hots, 2003ko urtarriletik abendura arteko kopuruak gehitu zituen (honako banaketari eutsita: % 95, Arabarako eta % 5, Estatuko Administrazioarako, hau da, ZAEARAKO).

3. 2007ko urriaren 10ean, Arabako Foru Aldundiko Finantza, Ogasun eta Aurrekontu Sailaren Ikuskatze Zerbitzuko buruak eskumenik gabeko administrazioan egindako diru sarrerei buruzko prozedurari hasiera emateko zen txostena eman zuen. Aipaturako hori 2006ko maiatzaren 18ko Erabakiaren barruan dago, 2007ko uztailaren 30eko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 1/2007 Aktaren XVI. eranskinean, hain zuzen ere. Txosten hori eman zen, Arabako Foru Aldundiko Unitate Koordinatzaileak izapidetu zezan eta bertan, ibilgailuen banaketaren prozesua berriro deskribatzeaz gain, 2004ko urtarriletik 2005eko irailera arteko zenbatekoak eguneratu zituen, ZAEARI erreklamatzeko.

Hala ere, gogoan izan behar da eskumenik ez duen administrazioan egindako diru sarreraren ondoriozko sortei buruzko lantaldearen ondorioak ZAEAKO zuzendariak eta

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

Euskadiko foru aldundietako hiru Ogasun zuzendariek 2006ko maiatzaren 18an egindako bilerako aktan jasota daudela. Bi gertakari dira garrantzitsuak: alde batetik, aipatutako ondorioak 2006ko urtarrilaren 1ean sartu ziren indarrean (ondorioz, erreklamatutako BEZaren azken likidazioaldiaren ondoren) eta, beste alde batetik, 1.1.2 ondorioaren arabera, ez dira sartu prozeduran eragiketen guztizkoaren portzentajeaz izandako aldaketaren ondoriozkoak diren diru sarrerak edo itzulketak. Aipatutako ondorioak eta bilerako akta, baita hartutako erabakiak ere, ez dira aldizkari ofizialetan argitaratu, ez estatukoan, ez autonomia erkidegokoan, ez probintziakoan.

4. 1998ko abenduaren 21ean, sozietateak Zergen Zuzendaritza Nagusiaren eta Ikuskaritzako Bulego Nazionalaren (IBN) aurrean kontsulta egin zuen, 1999ko urtarriletik aurrera BEZaren aitortpenak non aurkeztu behar zituen galdetuz, baita lurralde erkidean eta euskal lurraldean egindako eragiketen guztizkoa kalkulatzeko orduan jarraitu beharreko moduz eta irizpidez ere. Kontsulta hori Arabako Foru Aldundiko Finantza, Ogasun eta Aurrekontu Sailetik 1998ko azaroaren 24an jasotako errekerimenduaren aurrean izandako erreakzio juridikoa izan zen. Horrela bada, Sailaren iritziz, sozietateak konpainiak egindako ibilgailu salmenta guztiei dagozkien zergak ordaindu behar ditu euskal lurraldean, eta osagarrien eta ordezkio piezen salmentari dagozkion zergak, berriz, lurralde erkidean ordaindu behar dituela uste du Foru Ogasunak. Kontsulta interesgarria da sozietateak ezin hobeki azaldu dituelako salerosketaren prozedurak, bereizketa hauze eginez: 1990etik 1995eko abenduaren 31ra arte eta ordutik kontsulta egin denera arte. Kontsulta horretan jakinarazi zuten, ahozko informazioaren arabera eta ZAEAREN eta Arabako Foru Aldundiaren arteko iritzi desadostasuna ikusita, auzia 1981eko Ekonomia Itunaren 39. artikuluan aurreikusitako Arbitraje Batzordeari aurkeztu zitzaiola, baina ez dugu hori agertzen duen dokumenturik.

5. Aurreko kontsultari erantzunez, 1999ko otsailaren 19an, Lurralde Ogasunekin Koordinatzeko zuzendari nagusiak sozietateari honakoa jakinarazi zion: "Erakundeak non eta nola ordaindu behar dituen zergak behar bezala zehazteko

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

Estatuko Administrazioa egiten ari den jarduerak bukatu arte, erakunde horrek orain arte bezala jarduten jarraitu beharko du”.

6. 2000ko irailaren 19an, IBNk txostena eman zuen, Arabako Foru Aldundiak sozietateari aitorpenak aurkezteari buruz egindako errekerimenduari dagokionez. Txostenak funtsean honakoa ondorioztatu zuen: sozietateak ez du inolako jarduerarik egiten aipatutako lurralde historikoan, ondasun-emateak ezin direlako lurralde horretan egin; izan ere, funtsean ibilgailuak kontzesionarioen esku jartzeko ahalmenaren eskualdaketa titulartasuna duenak bakarrik egin dezake, eta kasu honetan sozietateak du titulartasuna, ez (2. Erakundea) taldeak. IBNren arabera, taldeak egiten dituen lanak logistika arlokoak dira, sozietatearen argibideen arabera, eta sozietateak ez du baliabiderik ez langilerik Euskadin; beraz, ez du inolako jarduerarik egin lurralde horretan.

7. 2002ko urriaren 28an, Zerga, Lurralde eta Europar Batasuneko Politikarako Idazkaritza Nagusiak txostena eman zuen Ogasuneko estatu idazkariaren Kabineteko zuzendariarentzat. Txosten horretan, gertakarien azalpenean elementu berri bat gehitu zuen: gatazka (hark horrela deitu zuen) 1994. urtekoa da; urte hartan Arabako Foru Aldundiak sozietateari eskatu zion foru lurraldeko BEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren diru sarrera egiteko; gatazka hori “1994ko abenduaren 20ko Koordinazio Batzordean piztu zen, eta batzorde horrek ez zuenez horri buruzko akordiorik lortu, oraindik ebatzi gabe dago”.

Funtsari dagokionez, hark uste du, ZAEAko IBNren 1999ko ekaineko txosten batean oinarriturik, sozietateak ez duela inolako jarduerarik egiten Euskadin eta ez duela erabakitzen ibilgailuak garraiatzeko abiapuntua; izan ere, (2. Erakundea) taldeak hartzen du erabaki hori; beraz, ez dago ulertzerik kontzesionario sareari ibilgailuak aipatutako lurraldean eman izana, eta horren ondorioz, ezin da aplikatu 1981eko Ekonomia Ituneko 28. artikulua. Azkenik, Kupoaren Batzorde Mistoak 2002ko martxoaren 6ko bileran egin zuen bederatzigarren akordioa argudiatu du (1/2002 Aktan jasota dagoena), hau da, bi administrazioek egun indarrean dagoen Hitzarmenaren aurretik egin zuten akordioa, garai hartan “bake fiskala” deitu zena

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebareko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

ekarri zuena. Akordio horretan, hain zuzen ere, honakoa agertzen da: “Kupoaren Batzorde Mistoan ordezkaturik dauden erakunde eta administrazioek behin betiko likidatu eta kitatutzat jotzen dituzte oraindik gauzatu gabe egon daitezkeen eta Akordio hau izenpetu arte exijigarri litezkeen fluxu finantzario guztiak”, eta hortik ondorioztatzen da sozietatearen zerga ordainketaren inguruko eztabaida 2002ko martxoaren 6tik aurrera sorturiko fluxu finantzarioei buruzkoa izan behar dela.

8. Jardunbideari helduz, Arbitraje Batzordeak 2008ko maiatzaren 12an egindako bileran, gatazka izapidetzeko onartu zen, ZAEA bere eskumenean isilbidez berretsi zela egiaztatu ondoren, EIABEren 13.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

9. 2008ko maiatzaren 20an, Arbitraje Batzordeko buruak gatazkaren planteamendua jakinarazi zion Euskadiko Zerga Administrazioako Estatuko Agentziaren (ZAEA) Ordezkaritza Bereziari, gatazkaren planteamenduari buruzko idazkia erantsita. Halaber, jakinarazpenean hilabeteko epea eman zitzaion egokitzen zeuzkan alegazioak aurkez zitzan, eta egoki irizten zizkion frogak proposa zitzan, EIABEren 16.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

10. 2008ko ekainaren 20an, ZAEAko zuzendari nagusiak alegazioen izapidea bideratu zuen, eta aldi berean ZAEAn sozietate horri buruz eta gatazkan azaldutako gaiei buruz dagoen administrazio espedientean datzan dokumentazioa aurkeztu zuen. Labur bada ere, Arabako Foru Aldundiaren nahien kontra egin zuen arrazoi hauengatik:

a) Gatazka epez kanpo planteatu izana; izan ere, EIABEren ezarritako hilabeteko epea igarota zegoen;

b) Bigarrenez, egindako erreklamazioaren preskripzio partziala alegatu zuen; izan ere, haren ustez, aurreko arrazoia ez onartzekotan, preskripzioa 1999ko azarotik 2005eko irailera arte sartutako zenbatekoetarako bakarrik izan behar da;

c) Hirugarrenez, uste du sozietateak ez duela instalaziorik edo establezimendurik Euskadin eta Ingalaterrako enpresa nagusiari egiten zaizkion ibilgailuen erosketak eta ondoren datorren ibilgailuak kontzesionarioei entregatzea, kontzesionarioek

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebarneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

eskaera egin ondoren izaten direla; horrela bada, logistika zerbitzuetarako kontratatu den enpresak Araban dauden instalazioak erabiltzea den gertaera zirkunstantzialak ez du aldatzen bi zergapeko egitateen kokapena, eta (Erakundea)-ren egoitza dagoen tokian gertatzen direla ulertu behar da;

d) Azkenik eta Arbitraje Batzordeak zergapeko egitatea euskal lurraldean kokaturik dagoela uste izatekotan, ibilgailuen garraioaren arabera, nahiz eta garraio hori sozietateak azpikontraturiko baliabideen bidez egin, kasu horretan zergapeko egitatea Gipuzkoan egindakotzat jo beharko litzateke, Erresuma Batutik garraiatutako ibilgailuak Pasaiako portuan lehorreratzten baitira. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duenez horri buruz inolako erreklamaziorik edo gatazkarik planteatu, dagokion BEZaren preskripzioa gertatuko litzateke.

11. 2008ko irailaren 8an, Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziak idazkia bidali zion Arbitraje Batzorde honi. Horren bidez azaldu zion zergapekoari Arabako Foru Aldundiak egin duen gatazkaren planteamendua jakinarazi zaiola.

12. 2008ko irailaren 24an, eta EIABEren 16.4 artikulua babespian, Arbitraje Batzordeko buruak inplikaturiko administrazioei eta prozedurako interesdunei espedientea eskura jarri zien, hilabeteko epean, egokitzat zeuzkaten alegazioak aurkez zitzaten.

13. Gure erregelamenduan azken alegazioak egiteko ezarrita dagoen hilabeteko epea igaro ondoren, ez Arabako Foru Aldundiak, ez sozietateak ez zuten haien eskubidea erabili eta ez zuten idazkirik aurkeztu; horrenbestez, lehenengo kasuan, gatazkaren planteamenduari buruzko idazkian ageri diren bere hasierako alegazioak aldatu ez dituela eta sozietateak alegazioak egiteko eskubideari isilbidez uko egin diola ulertu behar dugu. ZAEako zuzendari nagusiak, aitzitik, Arbitraje Batzorde honetan urriaren 29an sartu zen idazkiaren bidez, zenbait alegazio egin zituen: lehenik eta behin, 2008ko ekainaren 20an aurkeztu zituen alegazioetan ikusitako zenbait akats material zuzendu zituen; funtsean honakoak, hain zuzen ere: Arabako Foru Aldundiaren errekerimendu datak, preskribatuta dauden likidazioaldiak (aldi berriak 1990ko urtarriletik 1999ko azarora arte dira, biak barne),

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

eta, beraz, gatazka zein epealditara mugatu behar den (haren ustez, 1999ko abendutik 2005eko irailera artekoa izan behar da). Gainerako alegazioak 2008ko ekainaren 20ko idazkian ageri direnak hitzez hitz errepikaturik daude, modu laburragoan bada ere.

II.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gaiaren funtsari heldu aurretik, Arabako Foru Aldundiak gatazka epez kanpo aurkeztu izanari dagokionez ZAEAk azaldu duen gatazka ez onartzeko arrazoia argitu behar dugu. Zerga, Lurralde eta Europar Batasuneko Politikarako Idazkaritza Nagusiak Ogasuneko estatu idazkariaren Kabineteko zuzendariari bidali zion 2002ko urriaren 28ko txostenak berak dakarrenari jarraiki, gatazka 1981eko Itunean aurreikusitako Koordinazio Batzordean piztu zen 1994ko abenduaren 20an, eta oraindik ebatzi gabe dago (logikoki 2002. urtean ebatzi gabe zegoela esan nahi du). Bistan denez, aipatutako Koordinazio Batzordeak 1981eko Ituna indarrean zegoenean eginkizun mugatuagoak zituen (ikusi 40. artikulua), gaur egungo Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearekin erkatuz gero (2002ko Itunaren 64. artikulua), baina egia da bai 1994an bai 2002an Estatuko Administrazioak gatazka egon badagoela eta ez dagoela ebatzita onartu zuela.

Horrenbestez, honako hau nolabait eskumenik gabeko organo baten aurrean (Koordinazio Batzordea) 1994an planteatu zen gatazka da, Arbitraje Batzordea eratu baino lehen. Koordinazio Batzordearen baitan sorturiko desadostasunak ezin ziren Arbitraje Batzordean aurkeztu, 1981eko Ituna indarrean egon bitartean; egun indarrean dagoen 2002ko Itunak, berriz, inork oharren bat egiten badu Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen bilerarako deia egiteko aukera ematen du, lotura puntuen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzuteko. Azken Batzorde horren baitan akordiorik lortzen ez bada, auzia Arbitraje Batzordeari helaraziko zaio (nahitaez eta hautazkoa izan gabe).

Arabako Foru Aldundiaren lehenengo erreklamazio idazkiaren aurretik gatazka bazegoela berresten da IBNren 1995eko apirilaren 5eko eta urte horretako ekaineko

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebarneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

(eguna ez dago zehaztuta) txostenetan (ZAEAk igorritako espedientearen 216-223 or.). Hortaz, honako hau ez da *ex novo* planteaturiko gatazka, baizik eta, Arbitraje Batzordeko kideak izendatu eta Estatuko Aldizkari Ofizialean haren erregelamendua argitaratu ondoren, Arabako Foru Aldundiak gatazka modu formalean planteatu zuen aipatutako Batzordearen aurrean, ez zelako akordiorik lortu 1981eko Ituneko Koordinazio Batzordean.

Jakina, ZAEAk arrazoa du EIABEk ez duelako arautzen Arbitraje Batzordeko kideak izendatu eta batzorde hori benetan eratu aurretik planteaturiko gatazketarako behin-behineko araubidea, baina 2/2008 Ebazpenean, abenduaren 22koan, adierazi izan dugun bezala: *“Aitzitik, EIABEn ez dagoenez arau iragankorrik, ez dago arrazoirik adierazitako data horietatik batean edo bestean ezartzeko gatazka planteatzeko epearen hasierako eguna. Aldiz, badirudi egokia dela esatea erregelamendu honetako epeen sistema aplikatzearen baldintza dela Arbitraje Batzordea modu eraginkorrean egotea bere funtzioak betetzen. Hain zuzen ere, justifikaziorik gabekoa litzateke Arbitraje Batzordera, Ekonomia Itunean gatazkek ebazteko ezarritako bide gisa, jotzeko aukera iraungitzea organo horrek gatazkaren berri izateko benetako aukera eduki baino lehen. Ondorio horrek, gainera, pro actione printzipioan du oinarri, eta hari aurreko Zuzenbidezko Oinarrian heldu diogu. Iritzi horiek aintzat hartuta, Arbitraje Batzordeak hura benetan eratu zenean, alegia, 2008ko apirilaren 4an, ebazteko zeuden gatazkek izapidetzea onartzeko irizpidea hartu du. Horien artean, orain Arbitraje Batzorde honen erabakipean dagoena zegoen. Egia esan, ez dira EIABEk ezarritako hilabeteko epea aplikatzerik duten gatazka berriak, baizik eta orain dela denbora asko sortutako gatazkek (zenbait kasutan orain dela hainbat urte, erabaki honen xede den kasua bezala), eta hori ebazteko bide hau gaitzen da orain. Edonola ere, adierazitako epea ezin aplika liteke atzera eraginez, betiere, EIABEa argitaratu aurretik sortutako gatazken segurtasun juridikoa urratu gabe. Aurreko arrazoiketaren babesean, ZAEAk adierazitako epez kanpo egotearen alegazioa gaitzetsi behar da.”* Doktrina hori jakina honako gatazkara ekarri behar dugu.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebareko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ.

Aurreko hori guztia aintzat hartuta, eta esan dugun bezala, Arbitraje Batzordea 2008ko apirilaren 4an eratu zela eta gatazkaren planteamendua 2008ko martxoaren 14an sartu zela kontuan hartuta, argi dago ZAEAk gatazka ez onartzeko azaldu duen arrazoi hori baztertu daitekeela.

2. Subsidiarioki, eta planteatutako gatazka onartzekotan, ZAEAk honakoa eskatuko dio Arbitraje Batzordeari: Arabako Foru Aldundiak 1990eko urtarriletik 1999ko azarora arteko likidazioaldietarako (2008ko urriaren 29ko azken alegazio idazkian egin den data zuzenketa da) erreklamaturiko zenbatekoak preskribatu direla aitortzea. Horretarako Ogasun Publikoaren eskubide ekonomikoen preskripzioari buruz indarrean dagoen araudia argudiatu du; 2004ko abenduaren 31ra arte araudi hori irailaren 23ko 1091/1988 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 40. artikuluan jasota zegoen, eta bost urteko epea ezarri zuen, kredituak iraungitzeko modu hori mugatzeko; 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera, epea lau urtera murriztu zen, azaroaren 26ko Aurrekontuei buruzko 47/2003 Lege Orokorraren 15. artikuluari jarraiki.

ZAEAk hurrengo gogoetetan oinarritu du alegatutako preskripzioa:

1) Arabako Foru Aldundiaren 1998ko azaroaren 24ko idazkian 1990eko urtarriletik 1999ko irailera arteko aldietako BEZaren zenbatekoak erreklamatu ziren. Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 40. artikuluan egin zuen interpretazioa oinarritzat hartuta, bost urte zenbatu zituen eta bukatzeko 1990eko urtarriletik 1993ko urrira arteko aldiak preskribatutzat jo beharko zirela adierazi zuen.

2) Arabako Foru Aldundiaren bigarren idazkiak 2003ko abenduaren 18ko irteera data du eta ZAEAn 2003ko abenduaren 26an sartu zen. Idazki horretan, 1998ko urritik 2002ko abendura arteko aldietako BEZa erreklamatzear gain, 1998an egindako itzultzeko eskaera errepikatu zuen, (izan ere, isiltasuna baino ez zuen jaso) ZAEA delako zergaren ordainarazpenerako eskuduna dela uste baitzuen. ZAEAk azaroaren 26ko Aurrekontuei buruzko 47/2003 Lege Orokorraren 15.

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

artikulua argudiatu zuen preskribatutako aldiak luzatzeko, honakoa ondorioztatu baitzuen: “data horren aurreko lau urteetan enpresak BEZa gisa sartutako zenbateko guztiak, hau da, 1999ko urrira arte sartutako zenbateko guztiak jada preskribatutzat jo behar ziren” (2008ko urriaren 29ko azken alegazio idazkian 1999ko azaroa preskripzioari loturik dagoela gaineratu zuen).

Eragindako likidazioaldiei dagokienez bi preskripzio ezberdin egotearen aldeko argudioak labur azaldu ondoren, bidezkoa da gatazkaren zati bat ez onartzeko bigarren arrazoa aztertzeari ekitea, gatazkak eragiten dituen BEZaren aldiei dagokiena, hain zuzen ere.

Bada, argi dago desadostasuna 1994ko abenduaren 20an planteatu zela 1982eko Itunean ezarritako Koordinazio Batzordearen aurrean; era berean, agerikoa da Arbitraje Batzordearen aurrean formalizatu ez zen arren, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta, beraz, ZAEA jakinaren gainean zeudela. Horrez gain argi dago 1994ko irailean, sozietateak aitortu duen bezala (ZAEAk igorritako espedientearen 108. or.), Arabako Foru Aldundiak harengana jo zuela “(Erakundea)-k lurralde erkidearen aurrean zein Arabako Foru Aldundiaren aurrean zituen obligazioak zehazteko”. Ildo horretatik, alegatu den lehenengo preskripzioaldiari dagokionez, Arbitraje Batzordea ez dator bat ZAEAREN arrazoiketarekin, preskripzioa eten duten egintzak daudelako (1994ko irailean sozietatearen aurrean eta 1994ko abenduan Estatuaren Administrazioaren aurrean).

Preskripzioa eten zuen azken egintza hori ZAEAk berak onartu du, bera baita espedientera gehitu duena. Hain zuzen ere, Ebazpen honen 7. aurrekarian ikusi izan dugun bezala, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren mendeko organo baten txosten batean egiaztatu da bi administrazioen arteko gatazka edo desadostasuna 1996ko abenduaren 20koa dela (data horretan 1981eko Ekonomia Ituneko Koordinazio Batzordearen aurrean piztu zen –akordiorik lortu gabe-).

Era berean, 1994ko irailean Arabako Foru Aldundiak sozietateari BEZaren nahiz Sozietateei buruzko Zergaren aitortpenak edo likidazioak aurkezteko errekeritu ziola argi geratzen da. Ondoren, ustezko hartzekodunak –Foru Aldundiak- preskripzioa

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

eteteko egintzak egin zituen, eta ZAEAk ezin ditu horiek bazter utzi, batik bat Zerga, Lurralde eta Europar Batasuneko Politikarako Idazkaritza Nagusiak 2002ko urriaren 28an aitortu zituela kontuan hartuta –datak identifikatu dira-.

Gainera, kontuan izan behar dugu (ikusi Ebazpen honen 1. zuzenbideko oinarria) IBNk bi txosten eman zituela 1995ean, Arabako Foru Aldundiak 1994an egin zituen erreklamazioei erantzunez. Horregatik guztiagatik, ezin dugu onartu lehenengo aldi hori (1990eko urtarriletik 1993ko urrira artekoa) preskribatuta dagoenik, ustezko hartzekodunak egin izan dituen preskripzioa eteteko egintzak egon badaudelako, Estatuko Administrazioak eta sozietateak berak jakitun egonik. Azken batez, ZAEAk preskripzio epeak gaizki zenbatu ditu: 1998ko martxoaren 14a hartu du hasieratzat, baina hasierako eguna 1994ko abenduaren 20a da.

ZAEAk preskribatutzat jotzen duen bigarren aldiari dagokionez (1998ko urritik 2002ko abendura artekoa), lehen aipatu bezala, Aurrekontuei buruzko 47/2003 Lege Orokorraren 15. artikulua ezarritako lau urteko epearen aplikazioan oinarritu du preskripzio hori. Hala ere, lege hori ez zen indarrean sartu argitaratu eta hurrengo egunean, baizik eta 2005eko urtarrilaren 1ean, eta, beraz, 2003ko abenduaren 18an (Arabako Foru Aldundiak bigarren errekerimendua egin zuen egunean) preskripzio epea bost urtekoa zen oraindik, ez laukoa. Baliteke ZAEAk *lapsus calami* egin izana eta 1998ko azaroaren 24tik (ZAEari errekerimendua egin zitzaien eguna eta sozietateari BEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren aitortpenak aurkezteko egin zitzaien errekerimenduaren eguna ere bai) 2003ko abenduaren 18ra arte bost urte baino gehiago igaro zirela esan nahi izatea, hau da, 2003ko Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrean gabe, 1988ko Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 20. artikuluan aurreikusitako epea bete zela.

Adierazi dugun bezala, administrazio espedientetik ondorioztatzen da aipatutako Foru Aldundiak sozietateari errekerimendua egin ziola 1998ko azaroaren 24an aipatutako lurralde historikoko BEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren aitortpenak aurkez zitzan, bi zerga horien ordainarazpenerako eskumena zuela uste izanik. Hori dela eta, zergei buruzko kontsulta egin zen (1998ko abenduaren

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebarneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

21ean), 4. aurrekarian aipatu duguna, eta subjektu pasiboari emandako erantzuna espedientean jasota dago, baita Zerga, Lurralde eta Europar Batasuneko Politikarako Idazkaritza Nagusiaren 2002ko urriaren 28ko txostenean ere, eta bertan gogoratu zuen 1999ko otsailaren 19ko erantzunean zergapekoari honakoa esan zitzaiola: “ordura arte egiten zuen bezala ordaindu beharko zituen zergak (Estatuko Administrazioari) Estatuko Administrazioa, sozietateak nola eta non ordaindu behar zituen zergak behar bezala zehazteko, egiten ari zen jarduerak bukatu arte”. Txosten horretan ere aipatutako Idazkaritzak adierazi zuen gatazka – 1994an piztutakoa – artean ebatzi gabe zegoela.

Horren ondorioz, alde batetik, kontsultari erantzun izana preskripzioa eteteko egintza da, eta bestetik, 2002an Ekonomia eta Ogasun Ministerioak berak aitortu zuen gatazkak (horrelaxe deitu zion) ebatzi gabe jarraitzen zuela, eta ebatzi gabe egote horrek eskubide eztabaidagarriak preskribatzea eragozten zuen. Hau da, preskripzioa 2004an gertatuko zatekeen, hori eteteko egintzarik izan ez balitz (1988ko Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren bost urteko epea aplikatuz), ZAEAk nahi duen 2003. urtearen ordezkari. Hala ere, preskripzioa eteteko egintza horiek jasota geratu den bezala, hain zuzen ere, egin ziren.

Aurreko horregatik guztiagatik, lehen aipatutako likidazioaldietara mugaturiko preskripzioaren argudioa, ZAEAk alegatutakoa, alegia, bazter uzten dugu.

3. Gatazkaren planteamendua epez kanpokoa izateagatik ez onartzearena eta preskripzio partziala egotearena argitu ondoren, gaiaren funtsak eta lotura puntua zehaztu beharrak sozietateak egindako ibilgailuak merkaturatzeko prozeduran sakondu beharra exijitzen dute. Prozedura hori ZAEAk egindako eta espedienteari gehitutako alegazioen idazkiari erantsitako dokumentazioan deskribaturik dago. Horretarako, alde batetik, 1990. urtetik 1995eko urriaren 31ra arteko prozedura (egun horretan, hain zuzen, desegin zen ibilgailuak eskuratu eta banatzeko (3. Erakundea)-rekin sinaturiko kontratua) eta beste alde batetik, ordutik hasita eta 2005eko abendura arte izandako prozedura bereizi behar dira. Izan ere, azken

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebarneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ.

epealdi horretan (Erakundea)-k fakturatzen zuen eta Ingalaterratik heltzen ziren ibilgailuak kontzesionarioen esku jartzen zituen.

1) 1995eko urriaren 31ra arte, merkaturatzea honela egiten zen:

a) Ingalaterratik zetozen ibilgailuak Espainian sartzen ziren itsasotik, Pasaiaiko portuan (Gipuzkoa). Inportazioa (1993ko urtarrilaren 1era arte) edo ondasunen Erkidego barruko eskuraketa (data horretatik 2005eko irailera arte; gatazkak eragiten duen azken hileko likidazioaldia da hori) (Erakundea)-k egiten zuen.

b) Pasaiaitik eta, sozietatearen eta (2. Erakundea) taldearen artean sinaturiko kontratuari jarraiki, (4. Erakundea) enpresak (aipatutako taldeko kide dena) ibilgailuak fisikoki jasotzeko, aduanako dokumentazioa izapidetzeko (1993ra arte) eta abarretako zerbitzuak egin zituen.

c) Pasaiaitik ibilgailuak (5. Erakundea)-k (aipatutako taldeko kide ere den enpresa) kamioiz eramaten zituen Aiarako (Araba) Asparrena industrialdean zegoen landa bateraino.

d) (Erakundea)-ren eta (2. Erakundea) taldearen arteko akordioari jarraiki, (6. Erakundea) enpresa ibilgailuak biltegian uzteaz eta prestatzeaz (desparafinatzea, etab.) arduratzen zen, ondoren kontzesionario sareari bidaltzeko.

e) Azkenik, (Erakundea)-k ibilgailuak fakturatzen zizkion (3. Erakundea)-ri ((7. Erakunde)-ko sozietatea zena). Azken hori kontzesionarioek egiten zituzten eskaerez arduratzen zen eta, (Erakundea)-ren zerbitzuen bitartez (6. Erakundea)-ri jarraibideak ematen zizkion, ibilgailuak kontzesionario sareari bidaltzeko, (5. Erakundea)-ren bidez.

2) 1995eko urriaren 31tik aurrera, (Erakundea)-ren eta (3. Erakundea)-ren arteko kontratua deuseztatu zen; eta orduz geroztik (Erakundea)-k fakturatzen zuen eta ibilgailu berri guztiak kontzesionario sarearen esku jartzen zituen. Ildo horretatik, kasu gehienetan kontzesionarioak ordenagailuz zuzenean eskatzen zion Ingalaterrako fabrikari ibilgailua, eta gainerako kasuetan, berriz, (Erakundea)-k egiten zion eskaera Britainia Handiko enpresa nagusiari, stock aurreikuspenak eta

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

kontzesionarioen eskaerak oinarritzat hartuta. Aldaketa horretaz aparte, Britainia Handitik Espainiaraino ibilgailuak garraiatzeko prozedura berdina da, hau da, ibilgailuak itsasotik garraiatzea Pasaiako porturaino, (4. Erakundea)-ren landa batean aldi batez uztea, (5. Erakundea)-k kamioiz garraiatzea (6. Erakundea)-rena den landaraino (bertan ibilgailuak garbitu eta ikuskatzen zituzten) eta ondoren kamioiz garraiatzea ibilgailuak eskatu zituzten kontzesionarioetaraino, bai eskaera Ingalaterrako fabrikari zuzenean egin zutenetaraino nahiz (Erakundea)-ren bitartez eskaera egin zutenetaraino:

(Erakundea)-ren beste enpresa jarduera (Arabako Foru Aldundiak kalkulatu du, inolako kalkulu oinarririk aurkeztu gabe, fakturazioaren guztizkoaren % 5 dela) Britainia Handitik kamioietan sozietateak Guadalajaran azpikontrataturik daukan biltegiraino zuzenean ekartzen diren osagarriak eta ordezeko piezak saldu eta banatzean datza; aipatutako biltegitik gero kontzesionario sareari banatzen zitzaion.

4. Gatazkan inplikaturik dauden bi administrazioen artean ez dago desadostasunik oinarritzko hiru puntutan: a) sozietatearen helbide fiskala Madrilen dago; b) sozietateak 2001era arte 500 miloi pezetatik gorako fakturazioa izan zuen eta 6 miloi eurotik gorakoa, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera eta c) merkaturatzeko prozedura sozietateak adierazitakoa da, nahiz eta Foru Aldundiak ez duen bereizten 1995eko urriaren 31ra arte jarraitutako eredu eta ondoren jarraitutakoa.

Desadostasunak behin-behinean BEZari loturiko zergapeko egitateak non egin ziren zehaztearen ingurukoak dira funtsean. Arabako Foru Aldundiaren ustez -gatazkaren planteamenduari buruzko idazkian, ez baitu alegaziorik aurkeztu- bi zergapeko egitate bereizi dira:

a) Erkidego barruko eskuraketa bat, zergari lotua eta salbuetsi gabea (BEZari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 13. artikulua), ibilgailuak eskuratu eta zerga aplikagarria den lurraldean sartzeagatik, (Erakundea)-k haren enpresa nagusiari (8. Erakundea) egindako erosketaren ondoriozkoa.

b) Barruko eragiketa bat (ondasun-ematea), (Erakundea)-k haren kontzesionario sareari egindakoa, BEZari lotua eta salbuetsi gabea ere bai.

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebarneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ.

Erkidego barruko eskuraketei dagokienez, alegatu da 1981eko Ekonomia Ituneko – 12/1981 Legeak, maiatzaren 13koak, onartua- 28. artikulua nahiz egun indarrean dagoen Itunaren 27. artikulua –12/2002 Legeak, maiatzaren 23koak, onartua-honakoa xedatu dutela: Ondasunen Erkidego barruko trafikoarekin zerikusia duten eragiketen ziozko zerga era honetan ordainaraziko da: lurralde bakoitzean –lurralde erkidean eta foru lurraldean- egindako barruko eragiketen guztizkoaren proportzioan. Kopuru hori zehazteko, eragiketak zein lekutan egiten diren kontuan hartu beharko da.

Ondasun-emateei dagokienez ((Erakundea)-(3. Erakundea) 1995eko urriaren 31ra arte eta (Erakundea)-Kontzesionarioak 1995eko azaroaren 1etik aurrera, nahiz eta Aldundiak ez duen ibilgailuen merkaturatzean izandako aldaketaren arabera bereizketa hori egiten), haren ustez, 1990eko urtarriletik 2001eko abendura arteko aldietan aplikagarria da 1981eko Itunaren 5. ataleko 28. artikulua: “Ondasunak eskuratzailaren esku jartzeko garraiatu egin behar badira, igorpena edo garraiaketa hasten denean ondasunak non dauden, ematea hantxe egin dela ulertuko da”. Irizpide horri eusten zaio eta beraz, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikagarria da, egun indarrean dagoen Ituneko 28.Bat.A) artikulua, 1. atalean, ezarritakoari jarraiki.

Arabako Foru Aldundiak adierazi du, bi zergapeko egitate bereizi badira ere, beharrezkoa dela barruko eragiketen lotura puntua zehaztea bakarrik, ondasunen Erkidego barruko eskuraketek ez dutelako lotura puntu autonomorik eta independenterik, baizik eta administrazio bati edo besteari egozten zaizkiola barruko eragiketen guztizkoaren proportzioan (12/2002 Legeak, maiatzaren 13koak, onartutako Ituneko 27.Lau artikulua, eta 1981eko Ituneko 28.Sei artikulua, 11/1993 Legeak, abenduaren 13koak, emandako idazketan).5. ZAEAk bere aldetik bere alegazioak defendatzeko IBNk egindako 2000ko irailaren 19ko txostena gehitu du – Arabako Foru Aldundiak egindako errekerimenduaren gaiari buruzkoa- eta bertan ez dio ezer ondasunen Erkidego barruko eskuraketak egin diren lekuari buruz eta barruko eragiketei (ondasun-emateak) jartzen die arretan. Hori zuzena da ondasun-emateetarako ezarritako lotura puntuaren arabera ondasun eskuraketek duten

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebarneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

lotura puntuaren atxikidura aintzat hartuta. Beraz, ZAEA bat dator Foru Aldundiarekin gai eztabaidagarri honen planteamenduan, Ekonomia Ituna aztertuta, kontua ez delako Erkidegoaren barruko eskuraketa non egiten den zehaztea, baizik eta barruko eragiketa; izan ere, lehen adierazi dugun bezala, Erkidegoaren barruko eskuraketak barruko eragiketen guztizkoaren proportzioan egozten dira.

ZAEAk dio ibilgailuen ematea ez zela Arabako Lurralde Historikoan egiten, baizik eta lurralde erkidean, honako argudioetan oinarrituta:

- a) Oinarrizko argudioa da alde batetik Euskadin egindako lanak (2. Erakundea) taldearen giza baliabideekin eta baliabide materialekin egiten direla, eta (Erakundea)-k ez daukala ez baliabiderik ez langilerik lurralde horretan. Horrenbestez, ez du inolako jarduerarik egiten bertan; izan ere, baliabideen erabilera, baita landenena ere, (2. Erakundea) taldeak erabakitzen du. Bestetik, kontzesionarioetara eramango diren ibilgailuen abiapuntua aipatutako enpresa taldeak hartzen duen erabakia da, eta (Erakundea)-k ez du zerikusirik horrekin.
- b) Bigarren argudioa, aurrekoari loturik dagoena, honakoa da: ondasun-emateak berekin dakar ibilgailuak kontzesionarioen esku jartzeko ahalmenaren eskualdaketa eta erabaki hori titulartasuna duenak baino ezin du hartu, hau da, (Erakundea)-k, ez (2. Erakundea) taldeak.

Aurreko gogoetak oinarritzat hartuta, txostenak honako ondorioa atera du: sozietateak ez duenez inolako jarduerarik egiten Araban ezinezkoa dela ibilgailuak lurralde horretan ematea eta ibilgailuak kontzesionarioaren biltegian sartu aurretik gertatzen den garraioa zein lekutatik hasten den ez duela garrantzirik; izan ere, jatorri horrek ez du zerikusirik ibilgailuen ematea egiten duenarekin. ZAEAk bere alegazioetan azpimarratu duen bezala, aurreko irizpide horrekin bat dator, Zerga, Lurralde eta Europar Batasuneko Politikarako Idazkaritza Nagusia, 2002ko urriaren 28an egindako txostenean. Haren arabera, ezin da aplikatu 1981eko Ituneko 28. artikulua eta horren ondorioz, eragiketen % 100 lurralde erkidean egiten dira. Egia esan, azken txosten horretan IBNk 2000ko irailaren 19ko txostenean emandako

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

irizpena hitzez hitz agertzen da. Gehitzen duen gauza bakarra Ekonomia eta Ogasun Ministerioko organo goren horren aginpidea da.

ZAEAk bere alegazioei eutsi die honakoa adieraziz: kontzesionario sareari ibilgailuak garraiatzeko abiapuntua (lehenago (3. Erakundea)-ri, horren eta (Erakundea)-ren arteko kontratua desegin zen arte) (2. Erakundea) taldeak hartutako erabakia zen, eta (Erakundea)-k ez zuen zerikusirik horrekin; hark bakarrik zuen informazioa talde horren eskuetan dauden ibilgailuen egoerari buruz, eta berriz ere ondorioztatu du bere tesiaren aldeko argudio nagusia, hau da, sozietateak ez zuela inolako jarduerarik egiten Euskadin eta beraz, ezin dela kokatu lurralde horretan markako kontzesionarioei ibilgailuak ematearen ondoriozko zergapeko egitatea.

Arabako Foru Aldundiaren argudioei erantzunez, adierazi zuen bere xedea 1981eko Ituneko 28.5.A.a) artikulua (2001eko abenduaren 31ra arte) eta 2002ko Ituneko 28.Bat.A). 1 artikulua (2002ko urtarrilaren 1etik aurrera) irakurketa bakartu eta literal batean oinarriturik dagoela; funtsean pareko manuak dira, baina bakarrik dira aplikagarri beren testuinguruaren baitan eta arauaren espirtua eta xedea kontuan hartuta (Kode Zibilarren 3.1 artikulua), baldin eta subjektu pasiboak lurralde erkidean eta euskal lurraldean jarduten badu, 1981ko Ituneko 28.Bi artikulua eta 2002ko Ituneko 27.Bat. Bigarrena artikulua arabera, hurrenez hurren. (Erakundea)-k ez duenez jarduerarik egiten euskal lurraldean, ZAEAREN iritziz, ez dira aplikagarri Ituneko 28. artikuluan (2002ko Itunaz ari da) datozen lotura puntuak eta horren ondorioz, sozietateak kontzesionarioei egiten dizkien ibilgailu emateak ezin dira ulertu Araban egiten direnik, baizik eta lurralde erkidean. Horrenbestez, ez da aplikagarria Foru Aldundiak argudiatu duen Itunaren manua. Horrez gain, ZAEAk uste du Arabako Foru Aldundiaren xedea lotu egin behar dela BEZari buruzko Legearen 8.Bat artikuluan jasota dagoen ondasun-ematearen kontzeptuarekin. Honako ondorioa atera du: ibilgailuak kontzesionarioen esku jartzeko ahalmenaren eskualdaketa (ondorio hori bera aplikagarria litzateke, gure ustez, 1995eko urriaren 31ra arte (3. Erakundea)-ri egindako eskualdaketen kasuan, ZAEAk beren beregi esan ez arren) (Erakundea)-k bakarrik egin dezake, horien titularra delako, baina ez

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebarneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

(2. Erakundea) taldeak, ez duelako ibilgailuen titulartasunik. Hala ere, (eta hemen datza bere arrazoiketaren funtsa, aurreko gogoetekin bat datorrena) sozietateak ezin ditu ibilgailuak eman Araban, ez duelako jarduerarik egiten eta ez daukalako baliabiderik ez langilerik lurralde horretan.

Logistika sektoreari eta zenbait fabrikatzailek azken hori gero eta gehiago erabiltzeari buruzko zenbait gogoeta luzeren ondoren, honako ondorioa atera du: Arabako Foru Aldundiaren interpretazioa onartzekotan, zergapeko egitatearen kokapena ondasun-emateen zergapeko egitatea egiten duen enpresarekin inolako zerikusirik ez duten erabakien ondorioz gertatuko litzateke, eta kokapena ausazkoa da; izan ere, zerbitzuen enpresak ibilgailuak igortzeko erabiltzen zuen plataforma logistikoari buruz hartuko lituzkeen erabakien mendekoa izango litzateke; gainera, ibilgailuak banatu eta garraiatzeko zerbitzuak kontratu dituen bezeroak ez du erabakiotan eskurik hartzen.

c) Argudio osagarri gisa, adierazi du, eskuarki, ibilgailuak Ingalaterratik irteten direla kontzesionario erosle jakin bat ezarrita dagoela; horrela bada, ibilgailuak Erresuma Batutik eskaera egin duen kontzesionariora garraiatzen dira; nahiz eta ibilgailua beharrezko egunetan biltegian egon dokumentazioa izapidetu, ikuskatu eta garbitzeko. Dena den, zera ohartarazi behar dugu: argudio hori aurrekoekin kontraesanean egon liteke, izan ere, kasu honetan, (Erakundea) ez litzateke Ingalaterrako enpresa nagusiaren ibilgailuen “eroslea” eta ondasunen Erkidego barruko eskuraketa gertatuko litzateke (8. Erakundea)-ren eta kontzesionarioaren artean.

d) Hala ere, subsidiarioki, gaiaren funtsari buruzkoa legazio nagusiak onartuak ez izatekoan, ZAEAk uste du kontzesionarioen eskaeraren ondorioz ibilgailuek Erresuma Batutik irteten zirenean aurretik zehaztutako jasotzailea zutela; horrela bada, Araban egiten ziren lan osagarriak kontuan hartu gabe, ibilgailuak Pasaiako portuan (Gipuzkoa) lehorrerutzen zirenean, leku horretatik bertatik hasten zen Espainiako lurralde barruko garraioa eskuratzailerik izango zen kontzesionariorantz. Hortik ondorioztatzen du Arbitraje Batzordeak Erkidego barruko eskuraketen

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

helmuga Euskadin dagoela oniritziko balu, bidezkoa litzatekeela aipatutako eskuraketak Pasaiako portuan kokatzea eta kontzesionarioetarainoko igorpena edo garraioa Gipuzkoako herri horretatik egiten zela zehaztea. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duenez erreklamaziorik edo gatazkarik planteatu, ZAEAREN iritziz dagozkion BEZAREN ekitaldiak preskribaturik egongo lirатеke.

8. Gatazkan inplikaturiko alderdiek hartu dituzten jarrerak azalduta, komeni da, gatazka ebazteko oinarritzkoa delako, sozietatearen eta (2. Erakundea) taldeko erakundeen arteko kontratu bidezko harremanak aztertzea. Izan ere, argi azalduta datoz (Erakundea)-ren eta (5. Erakundea)-ren artean, (4. Erakundea)-ren eta (6. Erakundea)-ren artean 1990eko urriaren 5ean sinaturiko kontratuan (ZAEAK igorritako dokumentazioaren 167. orria eta hurrengoak).

(Erakundea)-ren eta (2. Erakundea) taldeko aipatutako enpresen arteko 1990eko urriaren 5eko kontratuaren 5. klausulan, honakoa hitzartu zen: “ibilgailuak (4. Erakundea)-ren edota (6. Erakundea)-ren instalazioetan egongo dira”. Horrez gain, (Erakundea)-k (5. Erakundea)-ri igorritako 1992ko abenduaren 3ko gutunean (espedientearen 175. orria) agertzen da aurreko kontratua berritu dela eta “erantsita daudela ibilgailuak prestatzeko konpromisoak eta Araitik sarerainoko mugimenduak baita kontzesionario batetik besterako joan-etorriak ere”. Gutun horren III. eranskinean ezarrita dago, hain zuzen ere, “(6. Erakundea)-ren ahalmena ibilgailuak prestatzeko eta (garraiatzeko asmoz) (5. Erakundea)-ren esku jartzeko, 80 ibilgailu egunekoa dela. Kopurua handitu zitekeen (Erakundea)-k eskatuz gero, eta horretarako, aurretik aldi baterako langileak kontratatu behar ziren” (espedientearen 191. orria).

Hortaz, argi dago Araban ibilgailuak kokatzeko erabakia (Erakundea)-k hartu zuela, eta hark bazekien uneoro ibilgailuak non zeuden, horrez gainera, aipatutako kontratuaren 7.2 klausularen arabera, honakoa zehaztu zen: “(Erakundea)-k izendaturiko langileek (...) instalazioetara sartzeko baimena izango dute” ((4. Erakundea) eta (6. Erakundea)-ren instalazioetara) “(Erakundea)-k beharrezkotzat jotzen dituen ikuskatze eta kontrolatze lanak egiteko”.

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

Sozietateak ederki zekien zein zen ibilgailuen helmuga eta Araban izango zuten kokapena, (2. Erakundea) taldearekin askatasunez adostu zuelako Ingalaterratik ekarritako ibilgailuen lehenengo helmuga (Pasaia) eta bigarrena (Araia). Beraz, argi geratzen da ibilgailuak garraiatzen hasteko lekua ez zela sozietateak ezagutzen ez zuen erabakia ezta (2. Erakundea) taldeko enpresen gogoaren mendekoa bakarrik ere; izan ere, bistan denez, kontratatzeko erabakia (Erakundea)-ri dagokio, baita biltegian dauden ibilgailuak ikuskatzeko ahalmena ere eta azken horrek primeran zekien ibilgailuen kokalekua zein zen, kontzesionarioraino garraiatu aurreko eragiketa teknikoak egiteko. Beraz, ez da (2. Erakundea) taldea ibilgailuak Araban uztea askatasunez erabakitzen duena, ezta kontratuaren arabera lekua aukeratzeko edo aldatzeko erabakitze ahalmenak dituen ere, baizik eta sozietatearen eta (6. Erakundea)-ren arteko kontratua argia da. (Erakundea)-ren eta (2. Erakundea) taldearen arteko kontratuzko dokumentaziotik hurrengo hau ondorioztatu du Arbitraje Batzorde honek: (Erakundea) zen prozesu osoaren kontrola zuena eta (2. Erakundea) taldea zerbitzuak egiten zituen etxea baino ez zen, erabakiak hartzeko ahalmenik gabe.

9. Aurreko gogoetak aztertuta, ZAEAk erabili dituen argudioen artean, lehenengoari dagokionez, Arbitraje Batzorde honen iritziz (Erakundea)-k Euskadin baliabide materialik eta giza baliabiderik ez izatea ez da arrazoi onargarria ibilgailuak lurralde horretatik irten daitezela ukatzeko; izan ere, sozietatearen eta (2. Erakundea) taldeko enpresen artean sinaturiko kontratuetatik ondorioztatzen da horren zerbitzuak Pasaian (Gipuzkoa) eta Araian (Araba) egiteko erabakia (Erakundea)-k hartzen zuela. Beraz, ibilgailuen ematea (Erakundea)-k egiten zuen, berak zuelako ibilgailua eskualdatu edo kontzesionarioaren edo eroslearen esku jartzeko eskubidea, eta (6. Erakundea)-ri zein kontzesionariotara igorri behar zuen jakinarazten zion.

lido horretatik, sozietatearen helbide fiskala eta egoitza Madrilen egoteak ez dakar berekin ibilgailuak lurralde erkidetik irten izana Euskadin baliabide materialik eta giza baliabiderik ez izatearen oinarritzko argudio bakarrarekin, ZAEAk hori uste badu ere, eta bistakoa da (6. Erakundea) ibilgailuen jabea ez zenez ez zuela horiek

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebarneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ.

inoren esku jartzeko ahalmenik, salerosketak egiteko; beraz, beste norbaitek aginduta garraioa egitera mugatzen zen, jabearen, hau da, sozietatearen jarraibideak betez.

Beste alde batetik, ibilgailuen kokapen fisikoa eta lurralde jakin batetik irten izana ez da aldatzen landa (Erakundea)-ren jabetzakoa izateagatik edo hirugarren bati kontratatu izanagatik (egin izan den bezala); izan ere, datu erabakigarriena hau da: ibilgailuak Arabatik irteten dira sozietateak erabakita, (2. Erakundea) taldeak ezin du alde bakarreko erabakirik hartu, aurretik aipatutako kontratuan argi ikusten den bezala, Pasaiaiko portutik garraiatu ondoren ibilgailuek duten kokapenari buruz. Beraz, ZAEAREN alegazioa gaitzetsi behar da; izan ere, horren arabera, Arabako Foru Aldundiaren xedea onartzeak berekin ekarriko luke logistika arloko enpresak (ondasunaren jabea ez dena) zergapeko egitatea egiteko lekua ausaz aldatu ahal izatea, argudio hori bakarrik izango litzatekeelako onargarria (2. Erakundea) taldeko enpresek askatasunez eta (Erakundea)-ren onespenerik gabe erabaki ahal izango balute kontzesionarioei eskualdatu aurretik ibilgailuak zein probintzian kokatu, eta erabaki hori hartzea ez zegokion hari, baizik eta logistika zerbitzuak (6. Erakundea)-rekin beren beregi kontratatuta zituen sozietateari. Azken horrek ezin hobeki zekien landa non zegoen eta beretzat gorde zuen bisitak egiteko eta jarraibide egokiak emateko eskubidea.

10. Pasaiaetik Arabaraino egiten zen lekualdaketa ez du garrantzi juridiko eta fiskalik, ez zaiolako hirugarren bati ematerik egiten. Erkidego barruko eskuraketaren ondoriozko eragiketa materiala da. Aurreko gogoetatik abiatuta, ibilgailuak non ematen diren zehazteko, kontuan hartu behar da 2002. urtera arte 1981eko Ituneko 28.Bost.A) artikulua (49/1985 Legeak, abenduaren 27koak, emandako idazketan), honakoa baitakar: “Ondasunak eskuratzailaren esku jartzeko garraiatu egin behar badira, igorpena edo garraiaketa hasten denean ondasunak non dauden, ematea hantxe egin dela ulertuko da”. Bada, aipatutako aurrekarietatik ondorioztatzen da (3. Erakundea)-ri edota kontzesionarioei egiten zitzaizkien ibilgailu-emateen kopuru oso handi bat (ezin dugu kuantifikatu hemen, daturik ez dugulako) Araitatik (Araba) egiten zela, bertan baitzeuden garraiaketa

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebarneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

hasterakoan. 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sorturiko likidazioaldiei dagokienez, irtenbidea berdin-berdina da 28.Bat.A) 1. artikulua 1981eko Itunekoaren antzeko idazketa baitu (aipatutako 1985eko Legea aldatu ondoren).

11. Bukatzeko, ZAEAk Arabako Foru Aldundiaren eskumenik ezari buruz argudiatutako arrazoiketa subsidiarioa aztertu behar dugu, alde honetatik: ibilgailuak inportatuak (1993ko urtarrilaren 1era arte) edo Erkidegoaren barruan eskuratuak (data horretatik aurrera) zirenez Ingalaterratik itsas garraioz, eta Pasaiaiko portua Espainiako BEZaren aplikazioa egiten den lurraldearen barruan lehenengo helmuga izanik, Erkidego barruko eskuraketa Gipuzkoan egingo litzateke eta bertan kokatuko litzateke bai eragiketa hori bai ondasun-ematearen barruko eragiketa.

Horrela hitz egiterakoan, ZAEA Ituneko lotura puntuen alderantzizkatze batetik abiatu da inplizituki, Itunak uzten ez badu ere. Hain zuzen ere, lotura puntuaren atxikidura barruko eragiketetatik ondasunen Erkidego barruko eskuraketetara da (eskuraketek ez dute zergapeko egitatea egin den lekuaren araurik Itunean) eta ez alderantziz; beraz, ezin onartu daiteke, jarraian aztertuko ditugun arrazoiengatik, Erkidego barruko eskuraketa Pasaian (Gipuzkoa) kokatzen bada lurralde historiko horretan ondasun-ematearen barruko eragiketa kokatuko litzatekeela argudiatzen saiatzea. Horretarako honako argudioa hartzen du abiapuntutzat, ikusi dugun bezala: ibilgailuek aurrez ezarritako kontzesionarioa dutenez, salmena zuzenean egiten dio Ingalaterrako enpresa nagusiak kontzesionarioari. Argudio hori defendaezina da bi arrazoiengatik: alde batetik, ez diolako zuzeneko salmentarik egiten Ingalaterrako enpresa nagusiak kontzesionarioari, (Erakundea) erosle eta kontzesionarioentzako saltzaile gisa bitartekari aritu gabe, eta beste aldetik, ZAEAk esandakoa egia izango balitz eta (Erakundea)-k ez balu eragiketetan eskurik hartuko, ez da oso ongi ulertzen zergatik aurkezten dituen ordaintzekoak diren BEZaren autolikidazioak.

Arrazoiketa horren aurka egiteko, eta nahiz eta puntu honetan luzatuko garen, hurrengo gogoetak kontuan hartzea komeni da:

a) 1990eko urtariletik 1992ko abendura arte “inportazioak” delako zergapeko egitatea egin zen, sozietateak (8. Erakundea)-ri erosi zizkion ibilgailuak direla-eta,

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ.

BEZari buruzko abuztuaren 2ko 30/1985 Legean xedatutakoari jarraiki; horrela bada, 1981eko Ituneko 6. artikulua arabera, Estatuari soil-soilik zegokion aipatutako BEZaren zergapeko egitatea ordainarazteko eskumena (27/1990 Legeak, abenduaren 26koak, eta 38/1997 Legeak, abuztuaren 4koak, jatorrizko testuan egindako aldaketen ondoren, BEZa 1986ko urtarrilaren 1etik aurrera gehitu zelako gure ordenamendura) eta, beraz, epealdi horretan (Arabako Foru Aldundiak bereizten ez duen arren) “inportazioen” BEZa Estatuak eska dezake, gatazka sustatu duen Aldundiak ez, ordea (gertakari hori Aldundiak beren beregi onartzen du). Ildo horretatik, inportazioak Gipuzkoan koka litezke (ñabardurekin ibilgailuak diren edo igarobidean dauden salgaiak diren kontuan hartuta) baina berdin dio, edonola ere, inportazioen BEZa ordainaraztea Estatuari zegokiolako eta dagokiolako.

b) 1993ko urtarrilaren 1etik aurrera, Europar Batasuneko beste estatu kide batetik egindako ondasun eskuraketetan zergapeko egitate hori desagertu zen eta “ondasunen Erkidego barruko eskuraketen” kontzeptua agertu zen. Eskuraketa horiek direla eta, kontuan hartu behar da (2002ko urtarrilaren 1era arte) 1981eko Ituneko 28.Sei artikulua (11/1993 Legeak, abenduaren 13koak, egindako idazketaren arabera). Bertan dakarrenari jarraiki, administrazio bati bakarrik zergak ordaintzen dizkieten subjektu pasiboari administrazio horrek egingo die ordainarazpena eta bi administrazioari zergak ordaintzen dizkieten subjektu pasiboari administrazio bakarrak egingo die ordainarazpena, barruko eragiketen guztizkoaren proportzioaren arabera; arau hori 2002ko Ituneko 27.Laugarrena artikuluan jasota dago eta beraz, urte horretako urtarrilaren 1etik aurrera hasitako likidazioaldiei eragiten die. Hortaz, eta behin eta berriz esan dugun bezala, ez da zehaztu behar non egiten den Erkidego barruko eskuraketa (eta beraz berdin dio subsidiarioki ZAEAk zergapeko egitatearen modalitate hori Gipuzkoan kokatzen dela uste izatea), baizik eta barruko eragiketak non egiten diren, eta auzi hori aurreko Zuzenbideko Oinarrian argitu dugu.

c) Implizituki, ZAEAk esaten duena da eragiketa guztiak Gipuzkoan egiten direla, eta hori alde batera uztea komeni da ondasun-emateen kasuan; izan ere, bi itunak

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ.

oinarritzat hartuta argudiatu dugun bezala, Araban kokatzen dira, unean-unean indarrean dauden testuetan (puntu honetan aldatu gabeak) honakoa agertzen baita: “ondasun horiek garraiatu egin behar badira jaso behar dituenaren eskuetan uzteko” eta bistakoa da Pasaia eta Araia arteko garraioan ez dela jaso behar dituenaren eskuetan ezer uzten, jabeak bi lurralde historikoen artean egindako ibilgailuen mugimendu hutsa delako, eta ondasun-ematean jaso behar dituen, ZAEAk onartu bezala, lehenik eta behin (3. Erakundea) da eta, ondoren kontzesionarioak (baina jabea den (Erakundea)-ren bitartez, eta datu hori isilean gorde du ZAEAk). Beste alde batetik, Itunak lotzen ditu, ordainarazteko, “ondasunen Erkidego barruko eskuraketak” “ondasun-emateekin” eta ez alderantziz. Ildo horretatik, ZAEaren tesia, batzuk besteekin lotzerakoan, bakarrik onar liteke ondasun-emateak Gipuzkoatik egingo balira, ibilgailuak Espainiako lurraldean sartzen diren unetik horiek jasoko dituzten kontzesionarioak ezagutzen direla kontuan hartuta. Horixe da funtsezko argudioa alegazio subsidiario honetan. Baina, ZAEAk Araban giza baliabiderik ezta baliabide material propiorik ere ez izatearen premisa abiapuntutzat hartzen badu, lurralde horretan barruko eragiketak egiten direla ukatzeko, ez dugu ulertzen nola ulertzen duen Gipuzkoan badituela baliabide materialak eta pertsonalak, zergapeko egitatea (barruko eragiketak) bertan kokatuta dagoela uste izateko moduan.

Kontzesionarioak/jasotzaileak jakinaren ganean egoteak ez du beste hau eragozten: jaso behar dituenaren eskuetan uztea –Itunak horixe exijitzen baitu- ez da Paisaiatik gertatzen (oso gutxitan izan ezik, IBNren arabera, eta ez ditu kuantifikatzen laginketa teknikan oinarritzen delako eta, gainera, (3. Erakundea)-rekin sinaturiko kontratua indarrean zegoen uneei dagozkie) baizik eta Araitik; izan ere, Paisaiatik Araiainoko garraioak ez dakar berekin inolako eskualdaketarik eta inolako ondasun-ematerik, ezta, azken batez, jaso behar dituenaren eskuetan uztea ere.

Horrenbestez, argudio subsidiario hori gaitzetsi behar dugu, ez duelako inolako oinarririk Itunean eta ez delako zehatz mehatz azaldu dugun ibilgailuak merkaturatzeko prozesuaren ondorioa, bai “inportazioaren” unean (1993ko

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartearneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

urtarrilaren 1era arte) bai “Erkidego barruko eskuraketaren” unean (data horretatik 2005eko abendura arte eta gaur egun).

12. Laburbilduz, Arbitraje Batzorde honek aztertutako aurrekari faktiko eta juridikoak oinarritzat hartuta uste du ondasun-emateak (barruko eragiketak) Arabatik egiten direla, hau da, erosleenganainoko garraioa hasten den lekutik; bada, berdin dio (Erakundea)-k lurralde historiko horretan giza baliabide eta baliabide material propioak izan zein ez, edo kontzesionarioetara eraman beharreko ibilgailuak biltegian uzteko egitekoa azpikontratatu duen edo ez; izan ere, argi dago sozietate horrek duela ibilgailuak inoren esku jartzeko ahalmena eta, garrantzitsuago dena, horiek ikuskatzeko eta horien kokapenari buruzko erabakiak hartzeko ahalmena duela, (2. Erakundea) taldeak BEZaren zergapeko egitatea ausaz kokatu ahal izan gabe, (Erakundea)-rekin sinaturiko kontratuak ibilgailuak Araian kokatzera behartzen zuelako, ez zerbitzu osagarriak eskaintzen dituenak erabat libre hartutako erabakiaren bidez, baizik eta une oro ibilgailuen eskualdaketa, banaketa eta salmenta kontrolatu, ikuskatu eta agintzen zuen sozietatearen enpresa erabakiaren bidez, hain zuzen ere. Aurrekoa finkatuta eta bi lurraldeetan jarduten duten eta 2001era arte 500 miloi pezetatik gorako edo 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera 6 milioi eurotik gorako fakturazioa izan zuten subjektu pasiboen kasuan BEZa ordainarazteko atxikidura barruko eragiketen eta Erkidego barruko eskuraketen artekoa dela kontuan hartuta, eta lehenengoak Arabako lurralde historikoan kokaturik daudela kontuan hartuta, gauza bera eta proportzio berberean gertatzen da ondasunen Erkidego barruko eragiketekin, 2002ko Ituneko 27. artikuluan eta 1981eko Ituneko 28. artikuluan (11/1993 Legeak, abenduaren 13koak, egindako idazketan) ezarritakoari jarraiki.

13. Bukatzeko, gatazkaren planteamenduari buruzko idazkian, Arabako Foru Aldundiak adierazi du eragiketen guztizkoaren % 95 bere lurraldean egin dela, portzentaje horren frogarik edo frogabiderik aurkeztu gabe. Beste alde batetik, ez da inolako eztabaidarik sortu alderdi horren inguruan. Horren ondorioz, Arbitraje Batzorde honek uste du ezin duela iritzia agertu (Erakundea)-ren eragiketa guztiak kontuan hartuta Arabako Lurralde Historikoan egin dituen eragiketen proportzioari

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2008	R13/2009	2009/06/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuaren Administrazioa	Elkartebarneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia. Autoak eta geroko salmenta kontzesionarioei. BEZ

buruz. Portzentaje hori gatazkan inplikaturik dauden administrazioek zehaztu beharko dute, honako ebazpena betez.

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- 1990eko urtarriletik 2005eko abendura arte (Erakundea)-k egindako ondasun-emateen barruko eragiketen ondoriozko BEZa ordainarazteko eskumena duen administrazioa Arabako Foru Aldundia dela aitortzea.

Bigarrena. 1990eko urtarriletik 1992ko abendura arte (Erakundea)-k egindako inportazioen ondoriozko BEZa ordainarazteko eskumena duen administrazioa Estatuko Administrazioa dela aitortzea.

Hirugarrena.- 1993ko urtarriletik 2005eko abendura arte (Erakundea)-k egindako ondasunen Erkidego barruko eskuraketen ondoriozko BEZa ordainarazteko eskumena duen administrazioa Arabako Foru Aldundia dela aitortzea.

Honako ebazpena betez, gatazkan inplikaturik dauden administrazioek ezarriko dute euskal lurraldean egindako eragiketen portzentajea, BEZa aplikatu behar den lurraldean egindako eragiketen guztizkoa kontuan hartuta.